

## EREMU ASISTENTZIALEAN LAN EGITEN DUTEN ZELADORE EUSKALDUNENTZAKO GIDALIBURUA



Sorta bereko zortzigarren gidaliburua da Euskara Zerbitzu Korporatiboak arestian argitaratu duen hau. Euskaraz dakiteneztat nahiz ikasten dabiltenentzat da eta, aurreko gidaliburuak bezalaxe, zeladoreentzako honek ere jasotzen ditu pazienteekin dituzten harremanetan gehien errepikatzen diren ekintza komunikatiboen adibideak, bai eta oinarritzko hiztegi bat eta euskarazko komunikazioa hobetzeko hainbat gomendio ere.

Zortzi gidaliburu horiek [guztiak](#) – *Pediatría, Harrera, Medikuntza Orokorra, Larrialdiak, Ospitalizazioko solairuko erizaintza, Emagintza eta Eremu asistentzialeko zeladoretza*– Osakidetza webgunean bistaratu daitezke, eta arlo horietako batean badiharduzu eta paperezko formatuan eskuratu nahi baduzu, galdetu zeure erakundeko euskara-zerbitzuan.

## ABIAN DA URDULIZKO ALFREDO ESPINOSA OSPITALEA



Uztailaren lehenean inauguratu zuen ospitale berria Iñigo Urkullu lehendakariak, eta hilaren 7az geroztik abian dira bertako kanpo-kontsultak eta erradiologiako zerbitzua. Irekitze-prozesua amaitzen denean, besteak beste, ospitalizazioko 148 ohe, 8 ebakuntza-gela, larrialdietako zerbitzua, kanpo-kontsultak eta hainbat proba (funtzionalak, endoskopiak, mamografiak, eskanerra, erresonantzia magnetikoa) egiteko zerbitzuak eskainiko ditu ospitaleak. Lehen fasean, kirurgia handi anbulatarioarako ebakuntza-gelak, endoskopia digestiboak egiteko gelak, eguneko ospitale kirurgikoa, analisi klinikoetarako laborategia eta helduen zein haurren larrialdietako zerbitzua jarriko dira martxan; bigarren fasean, berriz, ospitalizazio mediko-kirurgikoetako unitateak,

ospitalizazio psikiatrikoa, bloke kirurgikoa, anestesia ondoko bizkorketarako unitatea eta etxeko ospitalizazioa, eta, azkenik, onkologia medikoa eta eguneko ospitale medikoa jartzen direnean amaituko da prozesua. Lehendakariak inaugurazio-ekitaldian azpimarratu zuenez, Urdulizko Alfredo Espinosa ospitalea Bizkaiko gizartearentzat eta EAarentzat, oro har, albiste bikaina da eta Eusko Jaurlaritzarentzat pertsonen osasuna lehentasunezkoa dela frogatzen du, eta, orobat: «Euskadi aurten ospitale publiko berri bat martxan jarri duen autonomia-erkidego bakarra da, eta Urdulizko ospitaleak Osakidetza zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoa egunez egun hobetzen eta indartzen jarraitzeko apustu sendoa egin dugula erakusten du».

## EUSKARAREN TXANTXANGORRIAK ABESTIA ERE BADAUKA

Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak Euskararen Txantxangorriaren kanpaina berria aurkeztu du, abesti eta guzti, horren egileak diren Dani Venegas eta Sorotan Beletaldeko Urbil Artola eta Gorka Sarriegi musikariak ere bertan zirela. Aurkezpenean, telebistarako iragarki berria, irratietan entzungo diren iragarki laburrak eta Interneten erabiliko diren bannerrak ere eman zituzten ezagutzera.

Abestia [www.euskararentxantxangorria.eus](http://www.euskararentxantxangorria.eus) webgunean eskura daiteke:

Sortaldeko argi berriari ari zaio aspaldi, arratseko azken izpiari egun eta gizaldi. Bular gorri, hegakada arin lur hauetan da emari erreka eta ibai zabalaren itsasoaren egarri. Lau haizetara hegan bera dabil airean ahotan, belarritan su epelean kalearen bizia herri honen irria euskararen txantxangorria...

# «Erakundeko zenbait gauza goitik behera aldatu behar dira»

## jabier arrizabalaga

Medikua eta Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzu Korporatiboko burua.

Langileek Osakidetzan duten egoera psikosozialari buruzko ikerketa egiten ari da Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzua. Bertako burua da Jabier Arrizabalaga, eta ikerketaren bidez erakundearen osasuna kalkulatu nahi dutela adierazi du. FPSICO metodologiarekin landu dute hori, eta ondorioak irailerako izango dituztela aurreratu du.

### Zein da inkestaren egitura?

Metodo espezifiko bat erabili dugu aurren: FPSICO izenekoa. Langile guztien ahotsa entzun nahi dugu, eta metodo hori da guretzat egokiena. Sistema horri hainbat galdera gehitu dizkiogu, emaitzak kokatu egin behar ditugulako. Arazoak dauden ingurunean, gutxienez, non dauden jakin behar dugu. Neurtu ditugun gauzen artean daude zenbaterainokoa den profesionalen parte-hartzea, gainbegiratzea eta lan-karga. FPSICO askoz ere metodo egokiagoa da; horren aurretik, zeharka galdetzen genuen faktore psikosozialez.

### Zenbat inkesta egin dituzue udaberrian?

11.000 inkesta egin ditugu; alegia, hiru langiletik batek erantzun du. Orotara, 54 galderari erantzun diete, Internet bidez. Benetan eskertzen diegu parte-hartzaileei egin duten ahalegina, guretzat oso garrantzitsua baita.

### Lehen fasea amaitu duzue. Orain zer lanetan hasiko zarete?

Inkesten emaitzak aztertzen ari da enpresa bat, eta uste dugu ondorioak irailerako prest edukiko ditugula. Emaitzak eskuetan izatean, fase kualitatiboari ekingo diogu, eta nolako neurriak hartu pentsatuko dugu. Batzuk oso espezifikoak izango dira; kasu horretan, lekuan bertan gertatuko dira aldaketak. Dena dela, inkestaren benetako helburua zuzendaritzak esku hartzea da.

### Zergatik?

Arazo batzuk egituratik datozelako. Inkestek erakusten badute parte-hartzea gorritz margotuta dagoela, horrek esan nahiko du langileari ez zaiola parte hartzen uzten, edo hark nahi baino gutxiago egiten duela hori. Beste faktoreekin ere berdin gertatzen da. Gainbegiratzerik ez dagoela badiote, erakundeak neurriak hartu beharko ditu hori aldatzeko. Zenbait gauza goitik behera aldatu behar dira.



«11.000 inkesta egin ditugu; alegia, hiru langiletik batek erantzun du»







ARAITZ MUGURUZA

«Dena den, aldaketak badaudela ikusten dut. Orain jendeari hitza eman nahi zaio»

### **Arlo psikosoziala lantzen ari zareten arren, esan al zenezake oro har nola dagoen Osakidetza?**

Urte latzak igaro dira, beste enpresa askotan bezalaxe. Hori ezin dugu ukatu. Dena den, aldaketak badaudela ikusten dut. Orain jendeari hitza eman nahi zaio; bakoitzari bere lana antolatzeke askatasuna ematen zaio... Esango nuke zuzendaritzak beste ikuspegi bat hartu duela, eta aldatzen ari da. Egia esan, Osakidetzan aldaketak sumatzea zaila ere bada, erakunde erraldoia baita.

### **Langileei dagokienez, berriz, aldi baterako profesional ugari dago oraindik.**

Zifra handia da, bai. Oso lanpostu finko gutxi geratzen dira libre, eta horietara jendetza aurkezten da. Iaz, adibidez, mila lanpostu baino gehiago eskaini ziren oposizioetan, baina azterketara askoz ere jende gehiago aurkeztu zen. Argi dago eskaria badagoela.

### **Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzu Korporatiboko burua zara. Arazo psikosozialez gain, zer ari zarete lantzen orain?**

Istripu biologikoen prebentzioan ari gara lanean, besteak beste. Materiala ahalik eta biosegurtasun handienarekin erosteko asmoa dugu; hala eginenez, istripu gutxiago izango dira eta. Erosketak hemendik egiten dira, Osakidetza Zuzendaritza Nagusitik; hori da biosegurtasuna bermatzeko modua.

### **Profesionalei egiten zaizkien erasoak ekiditeko kanpaina bat abiatu duzue.**

Guretzat, erronka bat da langileek jasaten dituzten erasoen aurkako kontzientzia sortzea. Behatoki bat jarri genuen abian, profesionalei egiten zaizkien erasoak jasotzeko. Mahai tekniko bat da, erasoak espezifikoki tratatzen dituen, eta, halakoak berriaz gertatzen direnerako, arauak sortzen ditu.

### **Erasoak izaten direnean, nolako jarrera hartzen dute langileek?**

Gogorra izaten da, eta, moralki, minduta geratzen dira. Kopuru aldetik, zifra biribilik ez dago; hau da, erasoak ez dira ugariak, baina horietako bakoitza oso larria da. Gogorra izaten da isekak entzutea zure lana ahalik eta ondoena egin ondoren. Zaila da halakoak eragozte, baita neurriak

«Kopuru aldetik, zifra biribilik ez dago; hau da, erasoak ez dira ugariak, baina horietako bakoitza oso larria da»

hartzea ere. Zer egin behar da, segurtasun-enpresa bat kontratatu behar ote da? Beharrezkoa da?

### **Horregatik dira garrantzitsuak kanpainak.**

Bai horixe. Emaitzak kontzientziazioaren bidez lortuko ditugu; izan ere, kasu gehienetan atzean, errespetu-falta izaten da, gero eta errespetu gutxiago baitago. Pazientea larri badago, gogorra izaten da erietxean dauden senitartekoentzat eta lagunentzat, eta horren jakitun izan behar dugu, baina, guztiaren gainetik, errespetuz jokatu behar da.

## gramatika

### ZEHAR-GALDERARI ATZIZKIA ERANSTEA

Hegoaldean gaztelania nagusi den gizarte elebidunean bizi gara eta, sarritan, hizkuntza horretako ereduak izaten ditugu buruan. Horregatik, ziurrenik, ez da harritzekoa honelakoak irakurtzea:

- Hurrengo 10 urterako garapen-eredua **zein izango denari buruz** hitz egiten ari gara.
- Biologia bukatu eta gero **zer egingo dudana** ez dut ideiarik ere.
- Dirudienez, oraindik ez da ezer hitz egin lehendakarigai **nor izan daitekeenari buruz**.

Esaldi horietan aski genuke zehar-galdera (**zein izango den / zer egingo duan / nor izan daitekeen**), baina idazten ari denak, erdarazko «*acerca de*» zorionekoaren oihartzuna sumatuta-edo, beste zerbait ere erantsi beharra ikusi, eta behartu egiten du esaldia; alegia, «*Me preguntaron acerca de quién iba a hacer la prueba*» gogoan hartuta, «Proba **nork egingo zuenaz** galdetu zidaten» edo «Proba **nork egingo zuenari buruz** galdetu zidaten» asmatzen du, «Proba **nork egingo zuen** galdetu zidaten» esan beharrean.

Beste horrenbeste gertatu ohi da horien antzeko hauekin ere:

- Konturatu behar genuke **zer galtzen ari garenaz**.
- Gauzak honela, auzia Bruselak **zer erabakitzen duenaren zain** gelditzen da.
- Orain probak egingo dizkiote, eta gero erabakiko da zer egin, **haietan zer ikusten denaren arabera**.

Egitura horiek, ordea, ez dira zuzenak. Zehar-galderek -n atzizkia dute menderagailu, eta ez dute onartzen bestelako atzizkirik hari itsatsirik. Horregatik, ez dira zuzenak zehar-galdera baten amaieran atzizkiren bat edo postposizioaren bat dutenak, eta goiko horiek honela behar lukete:

- Konturatu behar genuke **zer galtzen ari garen**.
- Gauzak honela, auzia Bruselak **zer erabakitzen duen** zain gelditzen da.
- Orain probak egingo dizkiote, eta gero erabakiko da zer egin, **haietan zer ikusten den / haietan ikusten denaren arabera**

[ariketarak hemen](#)

Iturriak: [Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak \(35.or.\)](#); Euskal estilo libururantz (172. or.); [EHUTS](#)

### ADIZKI TRINKOAK SARRIAGO ERABILI BEHAR OMEN DITUGU

Nahiko zabaldua dagoen uste baten arabera, aditz trinkoak baztertuxe dauzkagu. Esaterako, Xabier Amurizak *Zazpi ebidentzia birjaiotzarako* liburuan, besteak beste, aditz trinkoaren galerak arduratuta daukala adierazi du. Are gehiago, bere ustez, aditza erraztu eta sinpletu egin behar da, eta [euskarak dituen aditz trinkoak berreskuratzearen alde agertu da](#).

Horregatik-edo, azken aldian, aditz trinkoaren aldeko nolabaiteko korrontea abiatu da. Beharbada Xabier Amurizak kaleratutako obrarekin hasiko zen, baina oraingoz behintzat umore-kutsu nabarmena hartu du joera horrek, eta hasieran serio hasi zena (atsegin dut = datsegit; aitortzen dut = daitort) azkenezan jolas ere bihurtu da: dizerdit (horrek), daflipat, [Trinko-tzaindia, 21 aditz trinko XXI. menderako](#), Aditz Trinkoen Erret Akademia (ATEA) eta abar.

Nolanahi ere, aditz trinkoen zale bazara eta duzun altxorra aberastu nahi baduzu (zazaguztet, genihardukan, zentxezkigukete, euskuzue, zerizkizuen...), [jo hona](#).

### UDAKO EUSKARA-BARNETEGIAK

Uda honetan euskara-maila hobetu nahi duenarentzat.

[informazio gehiago](#)

### «MUSKERRAREN BIDEA» PASEALDIA

Asteasutik abiatuta, Obabako lurralde horretan barrena murgiltzen den bi kilometroko pasealekua da Muskerraren bidea. Bidea zehar, hainbat panel eta grabaziok (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez entzungai) Bernardo Atxagaren obran ardatz diren testu, pertsonaia eta tokien berri emango diote ibiltariari.

[web-orria](#)

### «AZAL-AZALEAN» ERAKUSKETA

Donostiaren eta bertako identitatearen alderdi batzuen adierazle izan nahi duten margolan, eskultura eta argazkien erakusketa: gastronomia, musika, kultura-ondarea, ekitaldiak, tradizioak...

Parte hartu duten kolektiboak: Atzegi, Gautena, Atecé, Gielmar, Agifes, arte-ikasleak eta artistak.

Abuztuan, Donostian, San Telmo museoan.

[web-orria](#)

### «GABON, TXIRRITA» ANTZEZLANA

1982an Xabier Letek «Gabon, Txirrita» antzezlanaren taularatu zuen. Aurten 80 urte bete dira Txirrita hil zenetik eta, urtemuga hori dela-eta, Donostia 2016 Kultura Hiriburutzak Leteren obra berriro taularatu du Urrietako herritarrekin lankidetzan.

Irailaren 9an, Donostian, Trinitate plazan. Irailaren 23an, Urrietako kiroldegian.

[web-orria](#)

### BERDINTASUNERAKO III. JARDUNALDIAK: «ESKUBIDEAK, ERRESILIENTZIA ETA ERREHABILITAZIOA».

Hizkuntza: gaztelania.

Irailaren 30ean, Barakaldon, Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko areto nagusian.

[web-orria](#)

